Errenta horri dagokion zerga-zorraren zatiaren ordainketa atzeratu ahal izanen da, baloreak eskualdatzen diren zergaldiari dagokion aitorpenarekin batera sartuz, subjektu pasiboak horren ordainketa bermatzen baldin badu."

Berrogeita bederatzi. 139.3 artikulua.

"3. Zergari dagokionez, eskuratu diren ondasunak foru lege honetako 135. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratuko dira.

Hala ere, eskuratzaileak eskualdatzailearen kapitalaren 100eko 5 gutxienez parte hartzen duenean, eskuratutako ondasun eta eskubideei partaidetzaren eskurapen-prezioaren eta horrek ondare garbian duen zatiaren arteko diferentzia egotziko zaie, Merkataritza Kodeko 46. artikuluan eta gainerako garapen arauetan azaltzen den sartze orokorreko metodoa ezarriz; eta egozten ez den diferentziaren zatia zerga-oinarritik kendu ahal izanen da, kendu ere zenbatekoaren hamarrena gehienez urtean, ondorengo beharkizunak betez gero:

a) Partaidetza egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona zein entitateetatik eskuratutakoa ez izatea edo egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona fisikoengandik eskuratutakoa ez izatea edo lotura duen entitate batetik eskuratutakoa ez izatea, baldin eta entitate horrek, aldi berean, partaidetza aipatutako pertsona edo entitateetatik eskuratu badu.

Letra honetan ezarri den beharkizuna ondorengo kasuetan bete dela ulertuko da:

a') Partaidetza egoitza Espainiako lurraldean ez duten pertsona zein entitateetatik eskuratu bada edo eskuratzailearekin lotura duen entitate batetik eskuratu bada, baldin eta entitate horrek, aldi berean, partaidetza aipatutako pertsona edo entitateetatik eskuratu badu, idatz-zati honetan aipatutako diferentziagatiko zergak Espainian ordaindu direnean partaidetzako edozein eskualdaketaren bidez.

Halaber, aipatutako diferentziaren kenkaria egitea egokia izanen da horren baliokide den zenbateko bati zerga honen izaera berdin-berdina edo antzekoa duen beste bat aplikagatu zaionean, partaidetzaren eskualdaketan lortzen diren mozkin gisa, eta eskualdaketa egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duen entitate batek egin duenean, baldin eta entitate horrek egoitza paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde edo lurralde batean ez badu.

b') Egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona fisikoengandik eskuratu bada edo lotura duen entitate batetik eskuratu bada, baldin eta entitate horrek, aldi berean, partaidetza aipatutako pertsona fisikoengandik eskuratu badu, pertsona fisiko horiek eskuratu dituzten ondare-irabaziak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarrian sartu direla frogatzen denean.

b) Partaidetza eskuratu zuen entitatea ez egotea, eskualdatu zuen entitateari dagokionez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezartzen diren kasuetakoren batean, egoitza zein den eta urtero kontu bateratuak egin beharra kontuan hartu gabe.

Letra honetan aurreikusitako beharkizuna ez da ezarriko eskualdatzen duen pertsonak edo entitateak partaidetza eskuratzean ordaintzen duen prezioari dagokionez, eta, era berean, egoitza Espainiako lurraldean duten, eta loturarik ez duten pertsona edo entitateetatik eskuratua denean."

Berrogeita hamar. 139.4 artikulua.

"4. Aurreko a) eta b) letretako beharkizunak betetzen direnean, eskuratutako ibilgetuaren ondasunei egozten zaien zatiaren balorazioak zerga-ondorioak izanen ditu, eta egozten zaien zati horren kontabilitateko amortizazioa zerga-oinarritik kendu ahal izanen da, ondasun amortizagarrien kasuan, foru lege honetako IV. tituluaren II. kapituluan ezarri bezala; era berean, foru lege honetako 21. artikuluaren 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako kenkaria aplikagarria izanen da.

a) letrako beharkizuna betetzen denean baina aurreko b) letrakoa bete gabe, partaidetza eskuratzeko prezioaren eta ondare garbian horri dagokion zatiaren arteko diferentzia amortizatzeko zuzkidurak kengarriak izanen dira, balio-galera itzulezinaren ondorioz sortu direla frogatzen bada."

Berrogeita hamaika. 143.1.c) artikulua.

"c). Kontabilitate-liburuetan eragiketa burutu baino lehen entitate eskualdatzailearen liburuetakoa ez bezalako balioarekin sartu diren ondasun eskuratuen zerrenda, bi balioak adieraziz, baita amortizazio funtsak eta entitate bietako kontabilitate-liburuetan agertzen diren balio-galtzearen ondoriozko balio-zuzenketak ere."

Berrogeita hamabi. 145.1.b) artikulua.

"b) Ekarritako ondasunen errenta egozgarrien kargura banatzen diren mozkinek salbuesteko edo kenkarirako eskubidea emanen dute, dibidenduen nazioarteko zergapetze bikoitza saihesteko, bazkidearen partaidetzaren ehunekoa edozein izanik ere.

Partaidetzaren balio-galtzearen ondoriozko galera, aurreko paragrafoan adierazitako mozkinen banaketaren ondoriozkoa, hain zuzen ere, ez da kengarria izanen, salbu eta mozkin horiei dagozkien zergak Espainian ordaindu badira partaidetzaren eskualdaketaren bidez."

Berrogeita hamahiru. 153.c) artikulua.

"c) Sozietatearen xedea edo helburu zehatza betetzeari lotuta dauden ibilgetu materialaren zein ibilgetu ukiezinaren eta ondasun higiezinetako inbertsioen ondare elementuen kostubidezko eskualdaketan agerian jarritakoak, aipatutako eskualdaketen zenbatekoa sozietatearen xede edo helburu zehatz horrekin lotuta dauden ondare elementu horietarako erabiltzen denean. Inbertsio berriok, ondare elementua eman edo eskura jarritako dataren aurreko urtea eta ondorengo hiru urteak bitarteko epean burutu beharko dira, eta hamar urtez jarraituko dute entitatearen ondare izaten, behar bezala frogatzen diren galeren kasuan izan ezik, edo balio-bizitza osoan, hori laburragoa bada..

Letra honetan aurreikusi ez den guztirako 36. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da."

Berrogeita hamalau. 167.3. artikulua.

"3. Aurreko 1. idatz-zatian adierazitako ezaugarriak betetzen dituzten akzioen eta partaidetzen eskualdaketaren ondorioz lortzen diren errentei foru lege honetako 110. artikuluaren 1. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie.

Ez dira zerga-oinarrian sartuko, ibilgetu materialaren edo ondasun higiezinetako inbertsioen ondare elementu lotuen kostubidezko eskualdaketan lortzen diren errentak, aipatutako eskualdaketaren zenbatekoa 36.1 artikuluaren lehenengo paragrafoan ezarritako epeetan eta 70 bis.3.b) artikuluan xedatutako baloreak harpidetu edo eskuratzeko erabiltzen bada (foru lege honetako artikuluak dira bi horiek)."

Berrogeita hamabost. Seigarren xedapen iragankorra 1.

"1. Foru lege honetako 15. artikuluan eta 21. artikuluaren 1. eta 2. idatz-zatietan aipatu diren ibilgetu ukiezinaren elementuak, legea indarrean sartu aurretik eskuratuak, baldin eta horien zenbatekoak ez badira kendu zerga-oinarria zehazteko ondorioetarako, amortizatu ahal izanen dira, aipatutako artikuluan ezarritako baldintza eta betekizunekin, nahiz eta kontabilitatean amortizatuta egon."

3. artikulua. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga.

1. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, edukia ematen zaio apirilaren 26ko Legegintzako 129/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenen testu bategineko 35.1.A) artikuluko c) azpi-letrari. Honako testua izanen du:

"c) Parlamentuan ordezkaritza duten alderdi politikoak."

2. Aurreko 1. idatz-zatian ezarritako ondorio berekin, 24. idatz-zati berria gehitzen zaio apirilaren 26ko Legegintzako 129/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenen testu bategineko 35.1.A) artikuluko c) azpi-letrari. Honako testua izanen du:

"24. Alderantzizko hipotekaren eraketa, subrogazioa, berritze aldarazlea eta ezerezpena dokumentatzeko eskritura publikoak, egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notaritza-dokumentuen kuota gradualari dagokionez.

Ez dira salbuetsiko zordunaren ohiko etxebizitzaz bestelako edozein higiezinen gainean eraturiko alderantzizko hipotekei buruzko aurreko eragiketak".

3. Beste idatz-zati bat, hogeita bigarrena, gehitzen zaio Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako xedapenen testu bategineko 35.II. artikuluari. Testu hori apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona testua:

"22. Lanbide sozietateei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legeko hirugarren xedapen gehigarria, lehendik eratutako sozietateak lege horren xedapenetara egokitzeko beharrezko egintza eta agiriei dagokienez."

4. artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik ondorioak izanen dituztela, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 70.1 artikulua aldatu eta beste xedapen gehigarri bat erantsiko da.

Bat. 70.1 artikulua.

"1. Honakoek erabaki eta ezarriko dituzte tributu gaietako zehapenak:

a) Nafarroako Gobernuak, zehapen horiek honakoetakoak badira: enplegu edo kargu publikoetan jardutea etetea, onura edo pizgarri fiskalak izateko eskubidea galtzea, subentzio edo dirulaguntza publikoak izateko aukera galtzea, edo Foru Komunitateko Administrazioarekin edo beste erakunde publiko batekin kontratuak egiteko debekua.

b) Tributu likidazioko administrazio-egintzak emateko organo eskudunak edo, hala badagokio, zehapen prozedura hasi duenaren organo gorenak, arau-hauste arinagatiko diru-isunak badira edo arau-hauste larriagatiko diru-isunak badira.

Zehapen-prozedura hasi edo kitatzeko organo eskudunak dira antolamendu arauetan, zergak aplikatzeko prozedura arauetan, zehapen prozeduraren arauetan edo kasuan kasuko zerga arautzekoetan horrela ezarrita daudenak."

Bi. Bederatzigarren xedapen gehigarria eranstea.

"Bederatzigarrena.–Ogasun Publikoaren kontrako delituengatiko erantzukizun zibilaren ordainarazpena.

1. Ogasun Publikoaren kontrako delituengatiko prozeduretan, erantzukizun zibilak ordaindu gabeko zerga-zor osoa hartuko du, berandutza interesak barne, eta administrazioaren premiamendu prozeduraren bidez exijituko da.

2. Epaia irmoa denean, epaia betearazteko eskumena duen epaileak edo epaimahaiak Nafarroako Zerga Ogasuneko organoei epaiaren lekukotza igorri eta ordainarazpena gauzatzeko aginduko die. Era berean jokatuko da epaileak edo epaimahaiak errekurtsoa jarritako epai bat behin-behinean betearaztea erabakiz gero.

3. Zigor Kodeko 125. artikuluari jarraiki Erantzukizun zibilaren ordainketaren zatikapena erabakitzen denean, epaileak edo epaimahaiak Nafarroako Zerga Ogasunari jakinaraziko dio. Kasu horretan, delituaren erantzule zibilak zatikapenaren baldintzak bete ezean premiamendu prozedura hasi egingo da.

4. Nafarroako Zerga Ogasunak epaia eman duen epaileari edo epaimahaiari egindako izapideak eta, hala badagokio, epaiaren betearazpenari lotutako gorabeherak jakinaraziko dizkio, Espainiako Konstituzioaren 117.3 artikuluaren ondorioak izan ditzan."

5. artikulua. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik ondorioak izanen dituztela, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen ondoko artikuluak honela erredaktatuko dira:

Bat. 16.2 artikuluari f) letra gehitzea.

"f) Dauzkan berariazko ezaugarriak kontuan hartuta, karakterizazio normalizatua eta balorazio kolektiboa jaso ezin dezakeen beste edozein ondasun higiezin."

Bi. 16.5 artikuluko bigarren paragrafoa.

"Kalifikaziorik gabeko ondasun bereziek esleitutako balioari eutsiko diote eta ondasun berezi bezala jaso dituen hori ordeztuko duen balorazio txostenean balorazio normalizatua jasoko dute, erregelamenduz zehaztu bezala ondasun higiezinaren aldez aurretiko tasazio indibidualizatua egiten ahal dela ukatu gabe, eta banakako jakinarazpena egin eta hurrengo ekitaldi ekonomikoan ondorioak sortuko ditu."

Hiru. 18.1 artikulua.

"1. Nafarroako Zerga Ogasunari dagokio balorazioa egiteko parametro orokorrak onestea, ondasun higiezinen karakterizazioa eta balorazioa egiteko arau orokorrak aplikatzea, bai eta jarduera horien koordinazio lana egitea ere, tratamendu homogeneoa izan dezaten nafar lurralde osoan."

Lau. 31. artikuluaren izenburua.

"Lurzatien eta higiezin-unitateen mugen eta azaleraren aldaketa grafiko esanguratsua egiteko prozedura."

Bost. 31.1 artikulua.

"1. Lurzati batzuen edo higiezin-unitate batzuen mugen eta azaleren aldaketa grafiko esanguratsua egiteko prozedura udalak has dezake, ofizioz, eta interesdunak eskatuta ere hasten ahal da; interesduntzat hartzen dira aldaketak ukitzen dituen titular inskribatuak edo ondasunen gainean titulu justu baten bidez lurzati edo higiezin-unitate horien jabetza eskubidea dutenak."

Sei. 31.9 artikuluko lehenengo paragrafoa.

"9. Espedienteari erantsitako informazioaren ondorioz agerian gelditzen bada auzi zibil bat dagoela, zuzenbidean baliagarria den dokumentazioaren arabera inskribatutako titularrak titulu justuaren arabera eskatutako aldaketaren aurka daudelako, edo eskuragarri dagoen irudikapen grafikoan akatsa egoteari buruz edo hura eskatzaileak eskatu

bezala inskribatzea egokia izateari buruz zalantzarik gabeko uste osoa izateko aukerarik ez dagoelako, udalak, alkatearen ebazpen baten bidez, lurzati edo higiezin-unitate jakin baten mugak edo azalera aldatzeko eskaera ezetsiko du."

Zazpi. 32.4 artikuluko bigarren paragrafoa.

"Horrelakoetan, dagoen egoerak bere horretan jarraituko du harik eta arlo jurisdikzional zibilak ondasun higiezinaren titulartasunaren gainean epai irmoa eman arte."

Zortzi. 38. artikuluari hirugarren paragrafoa gehitzea.

"Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 141.3. artikuluko bigarren paragrafoan azaldutako ondorioetarako, banan-banan finkatu den baloreak ondorioak izanen ditu horri dagokion balorazio txostena onetsi eta hurrengo zergaldian."

Bederatzi. 40.5 artikulua.

"5. Ondasun bereziaren eraikuntza ezaugarrietan gertatzen diren aldaketak direla-eta balorazioa eginen zaie eraikuntza elementu berriei, bakar-bakarrik, betiere horiek ez badituzte aldatzen lehendik diren eraikuntza elementuen ezaugarriak eta balorazioa. Balorazio hori 2. idatz-zatian xedatutakoari jarraituz tramitatuko da."

Hamar. 40.6 artikuluko hirugarren paragrafoa kentzea.

40.6 artikuluko hirugarren paragrafoa indarrik gabe utzi da.

Hamaika. 40. artikuluari 7. idatz-zatia gehitzea.

"7. Berezi deklaratutako ondasunari, artikulu honetan xedatutakoarekin bat, esleitzen zaion banakako balioa (udaletako bakoitzari dagokion zenbatekoa barne, ondasun higiezina udal mugape batean baino gehiagotan badago) zuzenean sartuko da Lurralde Aberastasunaren Erregistroan, ebazpena jakinarazi ondoren, eta eraginkortasuna izanen du, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 141.3 artikuluan adierazitako ondorioetarako, jakinarazpen hori egiten den zergaldiaren ondokoan."

Hamabi. 44.2 artikulua.

"2. Lurralde Aberastasunaren Erregistroko informazio babestuari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko departamentuek eta haren mendeko erakundeek Lurralde Aberastasunaren Erregistroko datu-basea zuzenean kontsultatzen ahalko dute, horretarako gaitutako langileen bitartez soil-soilik, berariaz eskatuz gero eta Zerga Ogasunak 1. idatz-zatiko a) letran aipatutakoa gertatzen dela egiaztatu ondoren. Horrelakoetan, Nafarroako Zerga Ogasunak diseinaturiko aplikazio informatikoetan erabiltzailearen izena, hartzen den informazioa eta kontsultaren arrazoiak ageriko dira jasota."

Hamahiru. 44.3 artikulua.

"3. Lehenbiziko idatz-zatian aipatutako erakundeek, informazio babestua kontsultatzen ahal duten horiek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentuek eta Nafarroako udalek izan ezik, informazio babestua eskatzen dutenean, hurrengo artikuluan ezarritako betekizunez gain honakoak adierazi beharko dituzte: zein arauk ematen dien eskumena; zein proiektu, programa edo jarduera egiteko behar duten informazioa; eskatutako informazioaren izaera, bolumena eta eremua bat datozela informazio horren xedearekin.

Erakunde horiek beren eginkizunak ongi betetzeko aldian behin edo etengabe informazio babestua kontsultatu beharra badute, Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuko zuzendariak baimena ematen ahalko die behar duten informazioa Lurralde Aberastasunaren Erregistroko datubasetik zuzenean hartzeko, aurreko idatz-zatian adierazitako moduan."

Hamalau. 44.4 artikulua.

"4. Nafarroako udalek noiznahi kontsultatzen ahalko dute zeinek bere lurralde eta funtzio eremuari buruzko informazio babestua Lurralde Aberastasunaren Erregistroan. Horretarako, arau orokor gisa, zuzenean kontsultatuko dute, Lurralde Aberastasunaren Erregistroko datu-basean, Nafarroako Zerga Ogasunak jakinarazi edo ematen dion dokumentazioa eta, behar izanez gero, berariaz eskatuko dute behar duten informazioa."

Hamabost. 45.9 artikulua.

"9. Lurralde Aberastasunaren Erregistroan dagoen babespeko informazioa foru lege honetan ezarritako baldintzetan Interneten bidez eskuratzeko, aldez aurretik erabiltzailea identifikatu beharko da eta hari sarrera-gako pertsonalizatu bat esleitu, bai eta Zerga Informaziorako Sistemen Zerbitzuko zuzendariaren baimena ere.

Informazio babesgabea libre hedatzen ahalko da Internet bidez."

Hamasei. 47.9 artikulua.

"9. Honen aurreko idatz-zatietan ezarritakoa ezertan ere galarazi gabe, foru lege honen 14.5 artikuluan aipatzen diren erreferentzia identifikatzaile indardunak jarri beharko dira betiere ondoko kasuetan: arlo errealean eragina duten egintza, egitate edo negozioak, jabariari eta gainerako eskubide errealei buruzkoak, jasotzen dituzten agiri guztietan, ondasun higiezinaren erabilera edozein tituluren arabera lagatzeko edo errentan emateko kontratuetan, energia elektrikoa hornitzeko kontratuetan, proiektu teknikoetan edo ondasun higiezinei buruz erregelamenduz ezartzen diren gainerako agirietan."

Hamazazpi. 63.d) artikulua.

"d) Ondasun higiezina zalantzarik gabe identifikatzen duen lurzati zedula aurkeztu beharra edo erreferentzia identifikatzailea aurkeztu beharra ez betetzea, foru lege honen 54. artikuluko 6., 7. eta 9. idatz-zatietan azaltzen diren kasuetan.

Lurzati zedula aurkezteko eta, hartan dagoen informazioa edo foru lege honen 14.5 artikuluan aipatzen diren erreferentzia edo identifikatzaileak erabiliz, ondasun higiezina zalantzarik gabe identifikatzeko eskaera jasorik, foru lege honen 47.7 artikuluan aipatzen den administrazio prozedura edo titulu honetan aurreikusten dena bukatzeko ebazpena eman baino lehen zedula aurkeztu eta, kasua bada, titulua zuzentzen dutenek ez dute inolako erantzukizunik izanen."

6. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea.

Bat.–2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legeko ondoko artikuluek honako testu hau izanen dute:

1. 35. artikulua.

"35. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberako tasa eskatuko da:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| 1. TARIFA | Nafarroako Aldizkari Ofiziala herritarrei saltzea: | |
| | 1.1. Urteko harpidetza | 132,00 |
| | 1.2. Sei hilabeteko harpidetza | 66,00 |
| | 1.3. Ale soltea | 1,00 |
| | 1.4. Duela hilabete baino gehiago argitaratutako alea, baliakizunen arabera | 2,00 |
| 2. TARIFA | Iragarkiak jartzea | |
| | 2.1. Tarifa orokorra | |
| | 2.1.1. Hitz bakoitzeko | 0,22 |
| | 2.1.2. Orrialde bakoitzeko | 264,00 edo zati proportzionala, gutxienez erdia edo laurdena, taulak edo irudiak txertatzen direnean |
| | 2.2. Tarifa aurrez ezarria duten iragarkiak | |
| | 2.2.1. Kontratuen esleipena, Kontratuei buruzko Foru Legearen arabera | 99,00 |
| | 2.2.2. Jarduera sailkatuetarako udal lizentzia (ordainketa bakarra, lizentzia ematean) | 44,00 |
| | 2.2.3. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea betetzeko argitaratzen diren iragarkiak | 38,50 |
| | 2.2.4. Ur konfederazioek igortzen dituzten iragarkiak | 33,00 |
| | 2.2.5. Batzar Orokorrerako deialdia edo antzekoa | 33,00 |

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| | 2.2.6. Titulu edo agiriak galtzea | 16,50 |
| | Goiko 2.2 tarifan adierazitako iragarkiak 2.1 tarifa orokorraren arabera fakturatuko dira, azken hori aurrez ezarritako tarifaren bikoitza baino gehiago bada. | |
| | 2.3. Iragarkia presaz argitaratuz gero tarifa bikoitza ordainduko da." | |

2. 39. artikulua.

"39. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberakoa izanen da tasa:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| 1. TARIFA | Elkarteen erregistroa: | |
| | 1. Eraketa inskribatzea | 10,29 |
| | 2. Estatutuen aldaketa inskribatzea | 5,09 |
| | 3. Bestelako inskripzioak | 3,41 |
| | 4. Ziurtagiriak luzatzea | 6,82 |
| | 5. Liburu bakoitza legeztatzea | 3,41 |
| 2. TARIFA | Fundazioen erregistroa: | |
| | 1. Eraketa inskribatzea | 47,87 |
| | 2. Estatutuen aldaketa edo fundazioaren amaiera inskribatzea | 34,22 |
| | 3. Bestelako inskripzioak | 20,57 |
| | 4. Ziurtagiriak luzatzea | 6,82 |
| 3. TARIFA | Lanbide elkargoen erregistroa: | |
| | 1. Lanbide elkargoen eraketaren inskripzioa | 47,87 |
| | 2. Lanbide elkargoen Nafarroako kontseiluen eraketa inskribatzea | 47,87 |
| | 3. Bat-egitea, xurgapena, izen-aldaketa edo desegitea inskribatzea | 34,22 |
| | 4. Estatutuen aldaketa inskribatzea | 34,22 |
| | 5. Bestelako inskripzioa | 20,58 |
| | 6. Ziurtagiriak luzatzea | 6,82" |

3. 43. artikulua.

"43. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberako tasa eskatuko da:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| 1. TARIFA | Joko enpresen erregistroa: inskripzioa | 42,84 |
| 2. TARIFA | Joko eta josteta makinen modeloen erregistroa: | |
| | 1. Homologazioa eta inskripzioa | 180,54 |
| | 2. Homologazioa eta inskripzioa aldatzea | 89,76 |
| 3. TARIFA | Bestelako joko-materialak: homologazioa | 109,14 |
| 4. TARIFA | Bingo aretoak: | |
| | 1. Ustiatzeko baimena | 2.189,94 |
| | 2. Ustiatzeko baimena berritzea | 1.022,04 |
| 5. TARIFA | Agiri profesionalak: luzatzea | 19,38 |
| 6. TARIFA | Joko aretoa: | |
| | 1. Ustiatzeko baimena | 437,58 |
| | 2. Ustiatzeko baimena berritzea | 202,98 |
| 7. TARIFA | Joko makinak: | |
| | 1. Paratzeko baimena | 180,54 |
| | 2. Titular aldaketak eta truke fiskalak, makina bakoitzeko | 34,68 |
| 8. TARIFA | Zozketak, tonbolak eta zorizko konbinazioak: baimena | 57,12" |

4. 47. artikulua.

"47. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberako tasa eskatuko da:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| 1. TARIFA | Zezenketak, burtziketak, zezenketa mistoak eta pikatzaileekiko zekorketak baimentzea (ikuskizun bakoitzeko) | 34,68 |
| 2. TARIFA | Pikatzailerik gabeko zekorketak baimentzea (ikuskizun bakoitzeko) | 20,40 |
| 3. TARIFA | Bestelako zezenketa-ikuskizunetarako baimenak (ikuskizun bakoitzeko) | 13,26 |
| 4. TARIFA | Eremu publikoan jendaurreko ikuskizunak eta josteta jarduerak egiteko baimenak (ikuskizun edo jarduera bakoitzeko) | 42,84 |
| 5. TARIFA | Ikuskizun publiko eta josteta jardueren arloko enpresen erregistroan inskribatzea | 42,84 |
| 6. TARIFA | Zezenketa arloko profesionalen erregistroan inskribatzea | 78,54" |

5. 51. artikulua.

"51. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberako tasa eskatuko da:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| 1. TARIFA | Nafarroako Foruzaingoaren zerbitzu eta jarduerak. | |
| | 1. Nafarroako kirol federazioen egutegietatik kanpo egiten diren kirol probetako zaintza, segurtasuna eta segizioa, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan: | |
| | 1.1. Txirrindularien lasterketak, etapa bakoitzeko: Kategoriak: | |
| | a) Eskolak | 108,12 |
| | b) Kadeteak | 365,16 |
| | c) juniorrak | 436,56 |
| | d) 23z behekoak | 474,30 |
| | e) Elitekoak | 510,00 |
| | f) Masterrak | 510,00 |
| | g) Beteranoak | 474,30 |
| | h) Emakumeak | 436,56 |
| | i) Profesionalak | 1.022,04 |
| | j) Ziklokirolariak | 474,30 |
| | 1.2. Beste kirol proba batzuk | 217,26 |
| | 2. Zaintza, segurtasuna eta segizioa zikloturisten ibilaldietan eta eremu publikoetan egiten diren beste jarduera batzuetan | 182,58 |
| | 3. Beren ezaugarri teknikoengatik edo daramaten zamarengatik, baimendutako gehieneko masa eta neurriak gainditu edo erregelamenduz ezarritako gutxieneko abiadurara iristen ez diren ibilgailuak eskoltatu eta kontrolatzea eta haien zirkulazioa antolatzea. | 25,50 orduan foruzain bakoitzeko |
| | 4. Ibilgailuak eremu publikotik kentzeko zerbitzuak: | |
| | a) Bizikletak, ziklomotorrak | 21,42 |
| | b) Motozikletak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak | 28,56 |
| | c) Gehienez 2.000 kg-ko tara duten automobil, turismo, kamioneta, furgoi eta abarrekoak | 57,12 |
| | d) 2.000 kg-tik gorako tara duten kamioi, traktore, atoi, erdi-atoi, kamioneta, furgoneta eta abarrekoak | 86,70 |
| | 5. Ibilgailuak biltegietan edukitzeko zerbitzua, sartzen direnetik 12 ordu igaroz gero, eguneko: | |
| | a) Bizikletak, ziklomotorrak | 2,04 |
| | b) Motozikletak, motogurdiak eta antzeko ibilgailuak | 5,10 |
| | c) Gehienez 1.000 kg-ko tara duten automobil, turismo, kamioneta, furgoi eta abarrekoak | 9,18 |
| | d) 1.000 kg-tik gorako tara duten kamioi, traktore, atoi, erdi-atoi, kamioneta, furgoneta eta abarrekoak | 21,42 |
| | 6. Foruzaingoak ematen dituen txostenak | 43,86 |
| | 7. Zirkulazioa antolatzea bideen aprobetxamendu sozioekonomikoaren ondorioz | 25,50 orduan foruzain bakoitzeko |
| 2. TARIFA | Zirkulazioari buruzko Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan arautzen diren zirkulazio baimen osagarriak ematea | |
| | 1. Zirkulazio baimen osagarria, hilabeterako eta ibilgailu motordun bakar baterako | 15,00 |
| | 2. Zirkulazio baimen osagarria, hiru hilabeterako eta ibilgailu motordun bakar baterako | 30,00 |
| | 3. Zirkulazio baimen osagarria, sei hilabeterako eta ibilgailu motordun bakar baterako | 55,00 |
| | 4. Zirkulazio baimen osagarria, urtebeterako eta ibilgailu motordun bakar baterako | 100,00 |
| | 5. Zirkulazio baimen osagarria, bi urterako eta ibilgailu motordun bakar baterako | 180,00 |
| | 6. Zirkulazio baimen osagarria nekazaritzako ustiategien titularrentzat, sei hilabeterako eta nekazaritzako ibilgailu motordun bakar baterako | 24,00 |
| | 7. Kudeaketa eta bitartekotza lanak nekazaritzako kooperatibekin, kideen ibilgailu motordunetarako zirkulazio baimen osagarriak lortzeko | 372,00 |
| | 8. Zirkulazio baimen berezia urtebeterako eta nekazaritzako ibilgailu motordun bakar baterako, aldez aurretik baimen hori eskatzen duten nekazaritzako kooperatibetako kideentzat | 10,00 |
| | 9. Emandako zirkulazio baimen osagarriaren titularra aldatzea | 10,00 |
| | 10. Emandako zirkulazio baimen osagarriaren matrikula aldatzea | 10,00 |
| 3. TARIFA | Bideen erabilera sozioekonomikorako eskaerak | 41,82" |

6. 55. artikulua.

"55. artikulua. Tarifak.

Ordaindu beharreko tasak ondoko taulan ageri dira, euskarriaren arabera:

1. Paperean emandako informazioa:

| | PRODUKTUAK | TAMAINA | TASA EUROTAN |
|---|---|---|---|
| | **A. Inprimaki normalizatuak eta informazio agiriak** | | |
| 1 | Lurzati zedula: | DIN A4 | 1,20 |
| 2 | Ondasunen zerrenda titularraren arabera (orri bakoitzeko): | DIN A4 | 0,60 |
| 3 | Balorazio orria: | DIN A4 | 0,60 |
| 4 | Balorazio orria (ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eta oinordekotza eta dohaintzen gaineko zerga): | DIN A4 | 0,60 |

| | PRODUKTUAK | TAMAINA | TASA EUROTAN |
|---|---|---|---|
| 5 | Higiezin- unitatearen titulartasun orria: | DIN A4 | 0,60 |
| 6 | Aurreko akordioetarako balorazioa (Zergei buruzko Foru Lege Orokorra), ondasun bakoitzeko: | DIN A4 | 18,00 |
| 7 | Lurralde Aberastasunaren Erregistroko datuak (orri bakoitzeko): | DIN A4 | 1,00 |
| 8 | Higiezin- unitatearen datuen orria: | DIN A4 | 0,60 |
| 9 | Lurralde Aberastasunaren Erregistroko datuei buruzko informazioaren kopia edo fotokopia duten ziurtagiriak luzatzea: | DIN A4 | 5,00 gehi 1,00 orri bakoitzeko |
| 10 | Lurzati zedula ziurtatua: | | 6,20 |
| **B. Lurralde Aberastasunaren Erregistroko agirien fotokopiak zuri-beltzean** | | | |
| 1 | Katastro probintziala: | DIN A4/A3 | 3,00 gehi 0,10 orri bakoitzeko |
| 2 | Ezartze edo mantentze espedienteetako agiriak: | DIN A4/A3 | 3,00 gehi 0,10 orri bakoitzeko |
| 3 | Lurzatien planoa (orri bakoitzeko): | DIN A4/A3 | 2,40 |
| 4 | Hegaldi historikoa (orri bakoitzeko): | DIN A4/A3 | 2,40 |
| 5 | Balorazio ponentzia: | DIN A4 | 3,00 gehi 0,10 orri bakoitzeko |
| **C. Lurralde Aberastasunaren Erregistroko agiri digitalen kopiak** | | | |
| 1 | Krokisa (orri bakoitzeko): | DIN A4 | 0,60 |
| 2 | Eraikuntzen argazkia (orri bakoitzeko): | DIN A4 | 0,60 |
| 3 | Lurzatien leiho grafikoa, ortofoto eta guzti edo ortofotorik gabe | DIN A4/A3 | 1,20 |
| 4 | Lurzatiaren inguruaren leiho grafikoa, lurzatien puntu mugatuen koordenatuak (X-Y) adieraziz, hamar gehienez (DWG/DGN) (orri bakoitzeko): | DIN A4 | 20,00 |
| 5 | Fitxategi estandarren zerrenda (fitxategia egitea ez da sartzen) toki entitateentzat (orri bakoitzeko): | | 0,10 |
| **D. Kartografia eta argazkiak** | | | |
| 1 | Lurzatien planoa (1/500, 1/1000, 1/5000 edo 1/10000 eskalan) edo laburpen planoa: | DIN A1 | 18,00 |
| 2 | Lurzatien planoa (1/500, 1/1000, 1/5000 edo 1/10000 eskalan) edo laburpen planoa, ortofoto eta guzti, baliakizunen arabera: | DIN A1 | 30,00 |
| 3 | Lurzatien planoa poligonoaren arabera (toki entitateetan bakarrik) | DIN A1 | 18,00 |
| 4 | Hegaldi historikoaren kontaktua: | | 3,00 |
| 5 | Alorren plano eskaneatua, bereizmen larria: | DIN A4/A3 | 12,00 |
| 6 | Alorren plano eskaneatua, bereizmen xehea: | DIN A1 | 45,00 |
| 7 | Alorren plano eskaneatua, bereizmen xehea: | DIN A0 | 55,00 |
| 8 | Hegaldi historikoaren eremua handitzea: | DIN A4 | 15,00 |
| 9 | Hegaldi historikoaren eremua handitzea: | DIN A3 | 18,00 |
| 10 | Eremua handitzea: | 50x50 cm. | 25,00 |
| 11 | Negatibo osoa handitzea: | Gehienez: 50x50 cm | 30,00 |
| 12 | Eraikuntzen argazkia: | | 6,00 |

2. Euskarri informatikoan emandako informazioa: *

| | PRODUKTUAK | FORMATUA | TASA EUROTAN |
|---|---|---|---|
| **A. Inprimaki normalizatuak** | | | |
| 1 | Lurzati zedula: | PDF | 1,10 |
| 2 | Ondasunen zerrenda titularraren arabera (orri bakoitzeko): | PDF | 0,50 |
| 3 | Higiezin-unitatearen titulartasun orria: | PDF | 0,50 |
| 4 | Higiezin- unitatearen datuen orria: | PDF | 0,50 |
| **B. Beste agiri informatizatu batzuk** | | | |
| 1 | Krokisa (orri bakoitzeko): | DWG/DGN | 0,50 |
| 2 | Eraikuntzen argazkia: | JPG | 0,50 |
| 3 | Lurzatien leiho grafikoa, ortofoto eta guzti edo ortofotorik gabe | JPG | 1,10 |
| 4 | Lurzatiaren inguruaren leiho grafikoa, lurzatien puntu mugatuen koordenatuak (X-Y) adieraziz, hamar gehienez (DWG/DGN): | DWG/DGN | 20,00 |
| 5 | Fitxategi estandarren zerrenda (fitxategia egitea ez da sartzen) toki entitateentzat: | PDF | 30,00 |
| **C. Kartografia eta argazkiak** | | | |
| 1 | Lurzatien planoa (1/500, 1/1000, 1/5000 edo 1/10000 eskalan) edo laburpen planoa: | DWG/DGN | 6,00 |
| 2 | Lurzatien planoa (1/500, 1/1000, 1/5000 edo 1/10000 eskalan) edo laburpen planoa, ortofoto eta guzti, baliakizunen arabera: | DWG/DGN eta ortoa PDFn | 12 |
| 3 | Lurzatien planoa poligonoaren arabera (toki entitateetan bakarrik): | DWG/DGN | 6,00 |
| 4 | Alorren plano eskaneatua, bereizmen larria: | JPG | 3,00 |
| 5 | Alorren plano eskaneatua, bereizmen xehea: | JPG | 6,00 |
| **D. Datu ugari ateratzea** | | | |
| 1 | Lurralde Aberastasunaren Erregistroko datuen fitxategi estandarra (poligono osoen arabera): | ASCII | 40,00, eta 1,00 gehiago 1.000 erregistroko |

(*) Informazioa posta elektronikoz emateko tasak. Diskoan ere ematen da, 6 euro gehiago ordainduta disko bakoitzeko."

7. 56. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzea.

"3. Interesdunek Internetetik zuzenean deskargatzen duten informazioak ez du tasarik izanen."

8. VII. tituluaren izen berria.

"VII. TITULUA

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren tasak"

9. VII. bis titulua gehitzea: "Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren tasak, basogintzako materialei, ehizari, arrantzari, abelbideei eta berariazko ingurumen informazioari dagozkienak".

VII. bis tituluak egungo VII. tituluko kapitulu hauek bilduko ditu: "V. kapitulua. Basogintzako zerbitzu eta lanak egiteko tasa", "VI. kapitulua. Ehiza lizentziak eta ehiza esparruetako matrikulak emateko tasa", "VII. kapitulua. Arrantza baimenaren tasa", "VIII. kapitulua. Ibaietako arrantzarako lizentzia emateko eta ontziak matrikulatzeko tasa", "IX. kapitulua. Abelbideak aldi baterako okupatzeko tasa", eta "X. kapitulua. Berariazko ingurumen informaziorako materiala emateko tasa".

V., VI., VII., VIII., IX. eta X. kapitulu horiek VII. bis titulu berrian hurrenez hurren I., II., III., IV., V. eta VI. kapituluak izanen dira.

VII. bis titulu berriaren kapituluetan bilduko dira 80. artikulutik 95 ter artikulura bitartekoak, biak barne.

10. 99. artikulua.

"99. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberako tasa eskatuko da:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| 1. TARIFA | Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua: | Doan |
| 2. TARIFA | Batxilergoko titulua: | |
| | 1. Tarifa arrunta: | 44,90 |
| | 2. 1. kategoriako familia ugaria: | 22,45 |
| | 3. 2. kategoriako familia ugaria: | 0 |
| 3. TARIFA | Titulu teknikoa: | |
| | 1. Tarifa arrunta: | 18,00 |
| | 2. 1. kategoriako familia ugaria: | 9,00 |
| | 3. 2. kategoriako familia ugaria: | 0 |
| 4. TARIFA | Goi mailako teknikari titulua: | |
| | 1. Tarifa arrunta: | 43,84 |
| | 2. 1. kategoriako familia ugaria: | 21,92 |
| | 3. 2. kategoriako familia ugaria: | 0 |
| 5. TARIFA | Lanbide titulua: | |
| | 1. Tarifa arrunta: | 82,88 |
| | 2. 1. kategoriako familia ugaria: | 41,44 |
| | 3. 2. kategoriako familia ugaria: | 0 |
| 6. TARIFA | Hizkuntza baten gaitasun agiria: | |
| | 1. Tarifa arrunta: | 22,20 |
| | 2. 1. kategoriako familia ugaria: | 11,10 |
| | 3. 2. kategoriako familia ugaria: | 0 |
| 7. TARIFA | Euskararen Gaitasun Agiria: | |
| | 1. Tarifa arrunta: | 20,20 |
| | 2. 1. kategoriako familia ugaria: | 10,10 |
| | 3. 2. kategoriako familia ugaria: | 0 |
| 8. TARIFA | Goi mailako Musikako titulua: | |
| | 1. Tarifa arrunta: | 95,10 |
| | 2. 1. kategoriako familia ugaria: | 47,55 |
| | 3. 2. kategoriako familia ugaria: | 0 |
| 9. TARIFA | Bikoiztuak: | |
| | 1. 2. tarifatik 8.era bitarteko tituluenak, bi horiek barne: | 3,70 |
| | 2. Bigarren Hezkuntzako graduatu tituluarena: | Doan" |

11. 103. artikuluko 2., 3. eta 4. idatz-zatiak aldatzea.

"1. Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak.

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| A) | Ospitaleratze zerbitzua duten zentroak: | |
| | Sortzeko eta funtzionamendurako baimena tramitatzea: | 195 |
| | Hasierako egitura eta/edo araubidea aldatzeko edo baliozkotzeko baimena tramitatzea: | 130 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 130 |
| B) | Ospitaleratzerik gabeko zentroak: | |
| | Sortzeko eta funtzionamendurako baimena tramitatzea: | 100 |
| | Hasierako egitura eta/edo araubidea aldatzeko edo baliozkotzeko baimena tramitatzea: | 65 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 65 |
| C) | Osasun arloko garraioa: | |
| | Anbulantzien osasun ziurtagiria tramitatzea: | 65 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 65 |
| D) | Osasun zentro eta establezimenduen osasun arloko publizitaterako baimena: | 35 |

2. Farmazia establezimenduak:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| A) | Farmaziak: | |
| | Paratzeko baimena: | 225 |
| | Lokaletarako baimena: | 150 |
| | Titularra aldatzeko baimena: | 75 |
| | Jarduerak praktika egokiei lotuta egiten direla egiaztatzea: | 225 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 75 |
| B) | Gizaki eta/edo animalientzako botikak banatzeko biltegiak: | |
| | Paratzeko baimena: | 225 |
| | Lokaletarako baimena: | 190 |
| | Titularra aldatzeko baimena: | 75 |
| | Banaketa ikuskatzea eta praktika onei lotzen zaiela egiaztatzea: | 450 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 75 |
| C) | Farmazia zerbitzuak: | |
| | Paratzeko baimena: | 225 |
| | Lokaletarako baimena: | 150 |
| | Titularra aldatzeko baimena: | 75 |
| | Jarduerak praktika onei lotuta egiten direla egiaztatzea: | 450 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 75 |
| D) | Botika-kutxak eta botiken biltegiak: | |
| | Paratzeko baimena: | 125 |
| | Aldatzeko baimena: | 75 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 75 |
| E) | Gizaki eta/edo animalientzako botikak eta horien osagai aktiboak prestatzeko industria: | |
| | Fabrikazio onerako arauak betearazteko ikuskapena eta egiaztapena. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko: | 450 |
| | Publizitaterako baimena: | 125 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 75 |
| | Botikak eta beste produktu batzuk baimendu ondoko azterlanak. Baimena: | 350 |
| | Botikak eta beste produktu batzuk baimendu ondoko azterlanak. Hasierako baimena aldatzea: | 100 |
| F) | Kosmetikoak: | |
| | Fabrikazio onerako arauak betearazteko ikuskapena eta egiaztapena. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko: | 450 |
| | Merkaturatzearen arduradunak erregistroan inskribatzea: | 40 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 75 |
| G) | Osasun produktuak: | |
| | Optikak eta farmazia bulegoetako optika atalak baimentzea: | 225 |
| | Audio-protesien zentroak baimentzea: | 225 |
| | Ortopediak baimentzea: | 225 |
| | Osasun produktuen banatzaileak baimentzea: | 225 |
| | Osasun produktuen publizitatea baimentzea: | 125 |
| | Neurrira egindako osasun produktuen fabrikatzaileei funtzionamendurako baimena ematea: | |
| | –Ematea: | 600 |
| | –Baliozkotzea: | 400 |
| | –Aldatzea: | 225 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 75 |
| | Optikak, farmazia bulegoetako optika atalak, ortopediak, audio-protesien zentroak eta osasun produktuen banaketarako biltegiak baliozkotu eta/edo aldatzea: | 65 |
| H) | Laborategiak, botikak kontrolatu eta/edo garatzeko zentroak: | |
| | Laborategiak ikuskatzea eta praktika egokiei lotzen zaizkiela egiaztatzea. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko: | 450 |
| | Praktika kliniko egokien ikuskapena eta egiaztapena. Ikuskapenean eta/edo egiaztapenean emandako egun bakoitzeko: | 450 |
| | Ikuskapen arautua edo alderdi batek eskatua: | 75 |
| I) | Bestelako jarduketak: | |
| | Farmaziako zentro eta produktuen gaineko txostenak ematea, interesdunak eskaturik: | 125 |

3. Hileta-osasuna:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| A) | Gorpu bat edo gorpuzkiak hobitik ateratzeko eta berriz ehorzteko baimena: | 20 |
| B) | Hobitik atera ez den gorpu bat Foru Komunitatetik kanpora eramateko baimena: | 40 |
| C) | Gorpuzkiak Foru Komunitatetik kanpora eramateko baimena: | 20 |

4. Baldintza tekniko-administratiboak:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| A) | Dokumentazio ofizialaren eginbideak, tituluen erregistroa barne: | 7 |

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| B) | Gidabaimena eta arma lizentzia eskuratzeko azterketa psiko-fisikoa: | Azterketa zentroetan aplikatzen dena |
| C) | Berriemateak, informazioak eta Estatuko Administrazio Orokorrari jakinarazi behar zaizkion beste jarduera batzuk tramitatzea: | 15" |

12. 119. artikulua.

"119. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberako tasa eskatuko da:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| 1. TARIFA | Salgaien garraioa: | |
| | 1.1. Salgaien garraio publiko edo pribatu osagarrirako baimenak ematea, birgaitzea, bisatzea edo aldatzea, bai eta horien kopia ziurtatuak ere: | 23,00<br>ibilgailu bakoitzeko |
| 2. TARIFA | Bidaiarien garraioa: | |
| | 2.1. Bidaiarien garraio publiko berezi edo pribatu osagarrirako baimenak ematea, birgaitzea, bisatzea edo aldatzea: | 23,00<br>enpresarentzako baimen bakoitzeko |
| | 2.2. Ibilgailu bakoitzaren baimenaren kopia ziurtatuak luzatzea: | 9,00<br>kopia ziurtatu bakoitzeko |
| | 2.3. Erabilera bereziko bidaiarien garraio publikorako baimenak ematea edo berritzea: | 23,00<br>baimen bakoitzeko |
| 3. TARIFA | Ibilgailu gidaridun nahiz gabeak errentatzeko baimenak ematea, birgaitzea, luzatzea, bisatzea edo aldatzea: | |
| | 3.1. Ibilgailu gidaridunen errentamendua: | 23,00<br>ibilgailu bakoitzeko |
| | 3.2. Ibilgailu gidarigabeen errentamendua: | 75,00<br>subjektu pasibo bakoitzeko |
| 4. TARIFA | Garraio agentziak, transitarioak, biltegidun-banatzaileak zentralak nahiz sukurtsalak paratzeko baimenak ematea, berritzea edo aldatzea: | 46,00<br>subjektu pasibo bakoitzeko |
| 5. TARIFA | Bestelako tasak: | |
| | 5.1. Garraiolari eta garraio-jarduera lagungarrietan aritzeko gaitasun profesionalaren titulua lortzeko azterketa egiteko eskubideengatik: | 9,00 |
| | 5.2. Garraioko jarduera osagarrietarako eta garraiolari izateko lanbide-gaitasuneko titulua luzatzeagatik: | 23,00 |
| | 5.3. Liburu edo dokumentu nahitaezkoak legeztatu, eginbideak egin edo zigilatzeagatik: | 8,00 |
| | 5.4. Baimenen kopia bikoiztuak luzatzeagatik: | 13,00 |
| | 5.5. Garraiolarien eta Garraioko Jarduera Lagungarri eta Osagarrien Erregistro Orokorrean dauden datuekin zerikusia duten txosten idatziak jaulkitzeagatik: | |
| | 5.5.1. Pertsona, baimen, ibilgailu edo enpresa jakin bati buruzko datuekin zerikusia dutenak: | 23,00 |
| | 5.5.2. Datu orokor edo globalekin zerikusia dutenak: | 185,00 |
| | 5.5.3. Gidari ziurtagiria luzatzeagatik: | 23,00 |
| | 5.6. Takografo digitalaren txartela luzatzeagatik: | 37,00 |
| 6. TARIFA | Gidarien hasierako kualifikazioaren eta etengabeko prestakuntzaren tasak: | |
| | 6.1. Zentroak homologatzea: | 300,00 |
| | 6.2. Zentroak bisatzea: | 150,00 |
| | 6.3. Ikastaroak homologatzea: | 100,00 |
| | 6.4. Txartela luzatzea eta berritzea: | 20,00" |

13. 124. artikulua.

"124. artikulua. Zergapeko egintza.

Tasaren zergapeko egintza honakoa da: Nafarroako Foru Komunitateko errepide sareko errepideen inguruko zortasun eta eraginpeko eremuetan eta jabari publikoko eremuetan eraikitzeko eta lurzorua erabiltzeko egintzetarako baimena ematea, Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legean ezarritakoarekin bat."

14. 127. artikulua.

"127. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen araberako tasa eskatuko da:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| 1. TARIFA | Eraikinak egitea, berregitea edo handitzea. Gasolina-zerbitzuguneak ezartzea eta gasolina eta lubrifikatzaileak banatzeko aparatuak instalatzea: | |
| | 1. 3.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak: | 30,00 |
| | 2. 3.000tik 6.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak: | 59,00 |
| | 3. 6.000tik 12.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak: | 77,00 |
| | 4. 12.000tik 30.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak: | 120,00 |
| | 5. 30.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak: | 161,00 |
| 2. TARIFA | Eraikuntzen kontserbaziorako obrak egitea: | |
| | 1. 3.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak: | 25,00 |
| | 2. 3.000tik 6.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak: | 32,00 |
| | 3. 6.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak: | 42,00 |
| 3. TARIFA | Itxitura edo eustorma eraikitzea: | |
| | 1. Itxitura ez gardena (fabrika-obra edo heskaia), metro linealeko: | 2,80 (T.m.21) |

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| | 2. Itxitura gardena (hesola eta burdin haria edo sarea), metro linealeko: | 1,30 (T.m.21) |
| | 3. Eustorma, metro linealeko: | 3,50 (T.m.21) |
| 4. TARIFA | Uraren, elektrizitatearen, gasaren, telefonoaren eta abarren lurpeko hodiak paratzea: | |
| | 1. Hodia babes eremuetan paratzea: | 1,30 (T.m.23) |
| | 2. Galtzadapeko eroanbidea, metro 1,00 bitarteko diametrokoa, metro linealeko: | 3,60 (T.m.23) |
| | 3. Galtzadapeko eroanbidea, fabrika-obraz edo zubi bidez, behin-behineko desbidea barne: | 120,00 |
| 5. TARIFA | Lur gaineko lineak instalatzea: | |
| | 1. Goi tentsioko lineako zutoin edo dorre metalezko bakoitzeko, babes eremuetan: | 8,40 (T.m.41) |
| | 2. Behe tentsioko linearako edo bestelako lineetako zutoin bakoitza, babes eremuetan: | 3,80 (T.m.28) |
| | 3. Goi tentsioko lineak errepidea gurutzatzea: lur-berdinketaren gaineko metro lineal bakoitzeko: | 3,40 (T.m.41) |
| | 4. Behe tentsioko lineak edo bestelako linearen batek errepidea gurutzatzea: lur-berdinketaren gaineko metro lineal bakoitzeko: | 2,40 (T.m.28) |
| | 5. Babes eremuan dagoen transformazio gune bakoitzeko: | 44,00 |
| 6. TARIFA | Sarbideak, gurutzaguneak eta lotuneak: | |
| | 1. Finketarako sarbideak, zoladurak, aparkalekuak edo espaloiak egin, konpondu eta atontzea: | 30,00 |
| | 2. Maila bereko gurutzaguneak eta maila desberdinetako lotuneak eraikitzea: | 156,00 |
| 7. TARIFA | Harrobietako eta baso lanetako materialak gordetzea: | |
| | 1. Sei hilabetetik behera: | 28,00 |
| | 2. Gehienez urtebetean: | 46,00 |
| 8. TARIFA | Bestelako obra eta aprobetxamenduak: | |
| | 1. Arbolak bota edo landatzea: | 30,00 |
| | 2. Baskulak instalatzea: | 30,00 |
| | 3. Babes eremuan hobi septikoa ezartzea: | 33,00 |
| | 4. Lurpeko ur edo gas gordailua eta kutxetak egitea: | 31,00 |
| | 5. Informazio seinaleak eta kartelak jartzea, unitateko: | 28,00 |
| | 6. Eraikinak eraistea: | 28,00 |
| | 7. Finkak zelaitu eta betelana egitea: | 28,00 |
| | 8. Aurreko ataletan sartzen ez diren obra mota guztietarako: | 28,00 |
| 9. TARIFA | Aginduzko txostenak ematea errepideen babesaren arloan: | |
| | 1. Kirol probak, txirrindularien ibilaldiak eta bestelako ekitaldiak egitea: | 150,00" |

15. 128. artikulua.

"128. artikulua. Fidantzak.

Emandako baimenen ondorioz errepideetan izan daitezkeen kalteen erantzukizunari dagokionez, zilegi izanen da honako fidantza hauek jartzeko agintzea:

| | | EUROTAN |
|---|---|---|
| 1. | Errepidea "sator" batez gurutzatzea: | 850 |
| 2. | Errepidearen lurpeko gurutzaketa: | 850 |
| 3. | Goi tentsioko lineak airez gurutzatzea: | 850 |
| 4. | Behe tentsioko lineak airez gurutzatzea: | 214 |
| 5. | Finketarako sarbideak: | 214 |
| 6. | Egur lantegiak: | 850 |
| 7. | Eraikitzea maila bereko gurutzaguneak, errepideak fabrikako obrekin edo zubiekin gurutzatzea eta behin-behineko desbideak egitea: | Obra gauzatzeko aurrekontuaren 100eko 6 (830 euro gutxienez) |
| 8. | Bestelako baimenak: | 265 |
| 9. | Kirol probak, txirrindularien ibilaldiak eta bestelako ekitaldiak egitea: | 600" |

16. 133. bis artikulua, 4. idatz-zatia. Tarifa.

1.a "Inprimategian argitaratutako kartografia" izeneko 1) tarifari 8 zenbakia erantsi zaio:

| | |
|---|---|
| "8. Nafarroako alor eta aprobetxamenduen mapa 1:200.000 eskalan (hormakoa/tolestua): | 9,00" |

2.a Aldatu egin dira "Kartografia ploteatua" izeneko 2) tarifako 7, 8, 9, 10, 11 eta 12 zenbakiak:

| | |
|---|---|
| "7. Nafarroako mapa geologikoa 1:25.000: | 12,00 |
| 8. Nafarroako mapa geomorfologikoa 1:25.000 eskalan: | 12,00 |
| 9. Lurraren erabileren mapa 1:200.000 eskalan (paper arrunta): | 20,00 |
| 10. Europar Batasunaren intereseko lekuen mapa 1:200.000 eskalan (paper arrunta): | 20,00 |
| 11. Nafarroako abelbideen mapa 1:200.000 eskalan (paper arrunta): | 20,00 |
| 12. Naturgune babestuen mapa 1:200.000 eskalan (paper arrunta): | 20,00" |

3.a "Kartografia ploteatua" izeneko 2) tarifari 14 zenbakia erantsi zaio:

| | |
|---|---|
| "14. Nafarroako lurzoruaren erabileren mapa 1:25.000 eskalan (paper arrunta): | 12,00" |

4.a "Kartografia digitala" izeneko 3) tarifan aldatu egin da "Zenbatekoak" izeneko A) letra:

"A) Zenbatekoak:

| | TASA (EUROTAN) |
|---|---|
| 1. Iruñeko 1:25.000 eskalako mapa geoteknikoaren CDa eta oroit-idazkia (PDF): | 10,00 |
| 2. CD, B) letrako produktuen gaineko informazioa duena, 550 megabytekoa gehienez ere: | 10,00 |
| 3. DVD, B) letrako produktuen gaineko informazioa duena, 3.550 megabytekoa gehienez ere: | 60,00" |

5.a "Kartografia digitala" izeneko 3) tarifako "Produktuak" izeneko B) letrari 5 eta 6 zenbakiak erantsi zaizkio:

| |
|---|
| "5. Nafarroako mapa geologikoa 1:25.000 eskalan (pdf) |
| 6. Nafarroako mapa geologikoaren orri baten oroit-idazkia, 1:25.000 eskala (pdf)" |

